

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 20a

10. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, 2007-2013 urteetarako Nafarroako Landa Garapenerako Programaren gastu publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, gizarteratze errentaren gainean Gobernuak emandako datuei buruz. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, iragan urriaren 4ko euriteek eragindako kalteak arintzeko Nafarroako Gobernuak aktibatu zituen baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jakitekoa zer ekimen jarriko dituen abian Nafarroako Gobernuak ostalaritzari buruzko prestakuntzaren arloko zerbitzuak zabaltze aldera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldedia ordubetez irekitzeak duen kostu ekonomikoari eta itxita edukitzeak dakarren kostuaren zenbatespenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako langabezia-jaitsieraren eta Gizarte Segurantzari afiliatu diren pertsonen kopuruaren igoeraren arteko aldeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretua onesteak energia fotovoltaikoaren ekoizpenaren PFEZagatikoko diru-bilketan izanen duen eraginari dagokionez. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretua onesteak energia fotovoltaikoaren ekoizpenaren BEZagatikoko diru-bilketan izanen duen eraginari dagokionez. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, 2011ri dagokion biztanle bakoitzeko zerga-presioaren datuari buruzkoa, 2012ko kontu orokorretan jasotakoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Reyno Gourmetek 2013ko urtarriletik urrira bitartean gauzatutako ekimenei eta 2013ko urritik abendura bitarterako aurreikusitako jarduera-egutegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako liburutegi publikoetan azken bost urteotan kontraturiko langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

- Galdera, etxean arreta edo premiazko laguntza behar duen pertsona gaixo bat artatzeko protokoloari buruzkoa, Nafarroako Unibertsitateko langileei osasun-laguntza emateko hitzarmenarekin lotuta. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, entitate publikoetako izaera pertsonaleko fitxategiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lan egiten duten edo prestakuntzan ari diren barruko mediku egoiliar atzerritarrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Ganasa sozietate publikoarena den Etxauriko haritz eta gerezio sailean eginiko gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Zainketa Aringarrien Etxez Etxeko Laguntza Taldeari eta talde horrek eginiko jardunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, “Montepio orokorretik toki entitateentzako transferentziak, haien finantzaketarako” eta “Iruñeko, Tuterako eta Tafallako Udaletarako transferentziak” izeneko kontusailak finantzatu behar dituen kontusailako diru-sarrera handiagoen jatorriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Enpresarako Karbono Funtsean izandako parte-hartzearen balantzeari buruzkoa, ikuspuntu ekonomiko finantzariotik. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz, BEZa dela-eta “Estatuarekiko doikuntzak” kontzeptu gisa jaso edo ordaindutako kopuruei eta haien datei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Gazteluko plazan aurkitutako aztarna arkeologikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2007-2013 urteetarako Nafarroako Landa Garapenerako Programaren gastu publikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, 2007-2013 urteetarako Nafarroako Landa Garapenerako Programaren gastu publikoari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko iralaren 30eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak galdera hau egin du:

2007ko abenduaren 4an, Europako Batzordeak 2007-2013 urteetarako Nafarroako Landa Garapenerako Programa onetsi zuen; gastu publikoa, guztira, 502.354.319 eurokoa zen.

1.- Zenbat egiten du Nafarroako Foru Komunitatean, Nafarroako Landa Garapenera buruzko

2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta, 2012an guztira betetako gastuak?

2.- 2012an egindako gastutik, zein izan da Nafarroako Gobernuak betetako gastua, eta zein Europar Batasunak Feader programaren bitartez betetakoa?

3.- 2012an egindako gastuetatik, Nafarroako Gobernuak nahiz Europar Batasunak ardatz bakoitzera bideratutako zenbateko osoak xehakaituta:

a) Zenbat diru bideratu da 1. ardatzera (nekezarritza sektorearen lehiakortasuna)?

b) Zenbat diru bideratu da Feader programako 2. ardatzera (garapen iraungarri eta ingurumenarekiko begirunetsua)?

c) Zenbat diru bideratu da 3. ardatzera?

d) Zenbat diru bideratu da 4. ardatzera (Leader)?

(8-13/PES-00136)

Hauxe erantzun dio Landa Garapenerako, Ingu-
rumenerako eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

Nafarroako Foru Komunitateko 2007-2013 urteetarako LGPko ardatza	2012an egindako gastu publikoa (eurotan)		
	Guztira	FEADER	Nafarroako Gobernua
1. ardatza. Nekazaritza eta basogintza sektorearen lehiakortasuna handitzea	37.378.394,21	16.274.542,86	21.103.851,35
2. ardatza. Ingurumena eta landa ingurunea hobetzea	10.886.937,30	5.987.805,99	4.899.131,31
3. ardatza. Landa eremuetako bizi kalitatea hobetzea eta landa ekonomia dibertsifikatzea	997.143,55	498.571,74	498.571,81
4. ardatza. LEADER	3.026.862,05	1.664.774,15	1.362.087,90
Guztira	52.289.337,11	24.425.694,74	27.863.642,37

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 18an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, gizarteratze errentaren gainean Gobernuak emandako datuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 11ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du gizarteratze errentaren gainean Gobernuak emandako datuei buruz (8-13/PES-00148). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

Lan-taldera eramandako datuak zuzenak dira.

PEI-00265 eskariari erantzunez, berriz, urte bakoitzean gizarteratze errenta nahiz oinarrizko errenta kobratu zuten familia unitateen datuak eman ziren, eta bermatutako prestazio horiek batera eragindako guztizko gastuarenak. Bi datu sailak zuzenak dira.

Azken datu horietatik abiatuta, parlamentariak, edo PES-00148 galderako taulak egin dituenak, bi magnitudeen arteko zatiketa egin du eta familia unitate bakoitzak batez beste urtean jasotako zenbatekoa lortu du; datu hori ez du departamentu honek eman, baina zuzena da.

Lortutako zenbatekoa zati 12 egin da, ordea, hileko batez bestekoa kalkulatzeko; datu hori ez du departamentuak eman, eta okerra da, prestazioa ez delako beti urtekoa izaten; ez dute familia unitate guztiek urteko 12 hilabeteetan jaso gizarteratze errenta edo oinarrizko errenta. Zati 12 egin ordez, errenta kobratu den batez besteko hilabete kopuruaz egin behar zen zatiketa. Ondorioz oker konparatu dira lan-taldera eramandako informa-

zioa eta PEI -00265 eskariari erantzunez emandakoa.

Hain zuzen ere, emandako datuak (lan-taldekoak eta PEI-00265ekoak) konbinatuz erraz kalkula daiteke unitate bakoitzak batez beste zenbat hilabetetan jaso duen prestazioa (familia unitate bakoitzak urtean batez beste jasotako GE/OEaren zenbatekoa, Leuza jaunak kalkulatu edo aurkeztu duena, prestazioaren hileko batez besteko zenba-

tekoaz zatituz, ziur jakinen da unitate horrek batez beste zenbat hilabetetan jaso duen prestazioa).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 4an

Gizarte Politiketako kontseilaria, Íñigo Alli Martínez

Galdera, iragan urriaren 4ko euriteek eragindako kalteak arintzeko Nafarroako Gobernuak aktibatu zituen baliabideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, iragan urriaren 4ko euriteek eragindako kalteak arintzeko Nafarroako Gobernuak aktibatu zituen baliabideei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko parlamentu-galdera egin du iragan urriaren 4ko euriteek eragindako kalteak arintze aldera Nafarroako Gobernuak aktibatutako baliabideen (giza baliabideak, teknikoak eta aurrekontukoak) xehetasunei buruz (PES-154/13). Hauxe erantzun dio Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

Nafarroako Larrialdietako Agentziaren eta Nafarroako Foruzaingoaren baliabideak aktibatu ziren. Batik bat Tafallan esku hartu zuten eta neurri txikiagoan Tuteran, kopuruari, lanean egindako ordui eta kostu zenbatetsiari dagokienez. Hona hemen laburpena:

KATEGORIA	KOPURUA	ORDUAK	KOSTU ZENBATETSIA (€)
LANGILEAK	74	538	17.079
GARRAIO IBILGAILUAK	26	68	2.040
AUTOPONPAK	5	28	1.820
GUZTIRA			20.939

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, jakitekoa zer ekimen jarriko dituen abian Nafarroako Gobernuak ostalaritzari buruzko prestakuntzaren arloko zerbitzuak zabaltze aldera.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, azaltzekoa zer ekimen jarriko dituen abian Nafarroako Gobernuak ostalaritzari buruzko prestakuntzaren arloko zerbitzuak zabaltze aldera, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakitekoa zer ekimen jarriko dituen abian Nafarroako Gobernuak ostalaritzari buruzko prestakuntzaren arloko zerbitzuak zabaltze aldera (8-13/PES-00156). Hau

erantzun dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak:

Ostalaritzako prestakuntzaren eskaintza zabaltzeko ekimenei dagokienez, Hezkuntza Departamentua gaur egungo prestakuntzaren osagarria izanen litzatekeen prestakuntza eskaintza aztertzen ari da, honako jarduera hauen inguruan gauza litekeena:

- Sukaldaritza Zerbitzuen Zuzendaritzako goi mailako zikloa (modalitate duala)

- Sukaldaritza eta Gastronomiako erdi mailako ziklo berria (modalitate duala)

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia ordubetaz irekitzeak duen kostu ekonomikoari eta itxita edukitzeak dakarren kostuaren zenbatespenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia ordubetaz irekitzeak duen kostu ekonomikoari eta itxita edukitzeak dakarren kostuaren zenbatespenari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Populares de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia ordubetaz irekitzeak duen kostu ekonomikoari eta itxita edukitzeak dakarren kostuaren zenbatespenari buruz (8-13/PES-00167). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

Gizarte Politiketako Departamentuak hurrengo asteetan Lan Mahaia biltzeko deialdia egingen du. Kultura eta Turismo Departamentuko, Kirol Departamentuko eta CPENeko ordezkariak bilduko dira,

kanpoko adituez gainera, eta Arena kiroldegiaren etorkizuneko erabilerak zehaztuko dituen kudeaketa plana taxutzea izanen dute helburu nagusia. Mahai horren lanetatik abiatuta zehaztasunez jakinen ditugu zuk eskatu dituzun datuak eta atsegienez emanen dizugu horien berri.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 8an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Nafarroako langabezia-jaitsieraren eta Gizarte Segurantzaren afiliatu diren pertsonen kopuruaren igoeraren arteko aldeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako langabezia-jaitsieraren eta Gizarte Segurantzaren afiliatu diren pertsonen kopuruaren igoeraren arteko aldeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako langabezia-jaitsieraren eta Gizarte Segurantzaren afiliatu diren pertsonen kopuruaren igoeraren arteko aldeari buruz (PES-151). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak: Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguaren kontseilariak:

Lehenik, bi terminoen arteko kontzeptu desberdintasuna azalduko da:

– **GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA:** hilabete amaieran zenbat langile dauden alta emanda Gizarte Segurantzako araubideren batean. Lanetan ari diren langileak dira (ez dira kontuan hartzen langabeak eta ikasleak), eta horregatik sistema publikorako kotizatu behar dute, gutxienez erretiro, baliabizintasun eta heriotza egoerarako babesa izateko.

– **ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA:** Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) hilabete bakoitzaren amaieran guztira zenbat enplegu-eskaera dituen erregistratuta eta indarrean. Ez

dira kontuan hartzen 1985eko martxoaren 11ko Ministro Aginduan azaldutako egoera hauek:

- Beren lanpostuarekin bateragarria den beste bat nahi duten eskatzaileak (enplegu-aniztasuna).
- Duten lanpostua utzi ahal izateko beste lanpostu bat nahi duten eskatzaileak (enplegu hobeak).
- Langabezia-prestazioa jaso eta gizarte laguntzako lanetan parte hartzen duten eskatzaileak (gizarte laguntza).
- Erretiroko, baliabizintasun handiko edo ezintasun absolutuko pentsioa duten eskatzaileak eta 65 urte edo gehiago dituzten eskatzaileak (erretiratuak).
- Hiru hilabete baino gutxiagorako lanpostua nahi duten eskatzaileak (uneko uneko enplegua).
- Astean 20 ordu baino lanaldi laburragoa nahi duten eskatzaileak (20 orduetik beherako lanaldia).
- Irakaskuntza ofizial arautuko ikasketak egiten ari diren eskatzaileak, 25 urtez beherakoak badira edo zaharragoak izanda lehenbiziko lanpostuaren eskatzaileak badira (ikasleak).
- Lanerako Lanbide Heziketako ikastaroetan dabiltzan eskatzaileak, astean 20 ikastordu baino gehiago badituzte, gutxienez mantentzeko beka badute eta lehen lanpostuaren eskatzaileak badira (ikasleak).
- Eskaera etenda duten eskatzaileak, egoera horretan dirauten artean; izan ere, eskaera eteten denean (normalean eskatzaileak hala nahi duela-ko, arrazoi justifikatuengatik), enpleguaren bilaketa ere eten egiten da (etendako eskaerak).
- Lanaldi partziala dutelako, enpleguarekin bateragarria den langabezia-prestazioa jasotzen

duten eskatzaileak (prestazioen bateragarritasuna).

- Nekazaritzako sorospena jasotzen duten eskatzaileak, edo sorospen hori agortu dutenak, eskubidea sortu zen egunetik urtebete baino gehiago iragan ez bada (nekazaritzako behin-behineko langile sorospendunak).


- Beren ezaugarrietarako laneratze ekintza egokiei uko egiten dieten eskatzaileak, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 17. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera (laneratze ekintzei uko egitea).

- Berehala lan egiteko prest ez dauden eskatzaileak, edo lanarekin bateraezina den egoera dutenak, hala nola, lanpostu jakin baterako hautapen prozesuan parte hartzeko inskribatutako eska-

tzaileak, lanpostua atzerrian soilik nahi dutenak, etxean soilik nahi dutenak, enplegu-erregulazioko espediente baten ondorioz lanaldia etenda edo murriztuta edo lan baldintzak aldatuta dituztenak, eta abarrekoak (beste arrazoi batzuk).

Azpimarratzekoa da langabezia baja hartzen duten guztiek ez dutela zertan izan beren kontura edo besteren kontura lana aurkitu dutenak eta horregatik Gizarte Segurantzako araubideren batean alta hartu dutenak. Hala balitz, afiliazioa hazi eginen litzateke. Hori balitz erlazio logikoa, erregistratutako langabeziaren zifrek behera eginen lukete afiliazioa igotzen denean, eta kontrara; bien portaera alderantziz proportzionala litzateke.

Baina interpretazio hori ez da zuzena, honako arrazoibide honen arabera:



Diagramak erakusten duenez, Gizarte Segurantzaren afiliatzen direnak ez dira langabezian baja ematen zaien bakarrak. Gainera, ez da fluxu hori bi aldagaien portaera edo joera kontrolatzen duena, aitzitik, beste faktore batzuek esku hartzen dute, tartean honako hauek:

– Gizarte Segurantzako afiliazioa nahitaezkoa da. Langileari Gizarte Segurantzako araubide egokian alta eman behar zaio lanean hasten den aldi bakoitzean. Enplegu-eskatzaille gisa inskribatzea ez da nahitaezkoa.

– Gizarte Segurantzako kasuan kasuko araubideko bajak esan nahi du langileak jarduerari utzi diola. Enplegu-eskatzaille gisa baja hartzeak ez du esan nahi lanean hasi denik.

Hala, aldagaietako batek gora edo behera egitea ez da besteak gora edo behera egin izanaren ondorio. Biek hilabete berean goranzko edo beheranzko portaera berdina izan dezakete.

Beraz, ezin da bi aldagaien arteko konparaziorik egin, eta ez dago bien arteko erlazioa baldintzatzen duen faktorerik. Aldagai bakoitzak berez ematen ditu emaitza eta joera zehatz batzuk.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 8an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretua onesteak energia fotovoltaikoaren ekoizpenaren PFEZagatiko diru-bilketan izan den eraginari dagokionez.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, azaltzekoa zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretua onesteak energia fotovoltaikoaren ekoizpenaren PFEZagatiko diru-bilketan izan den eraginari dagokionez. Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakitekoa zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretua onesteak energia fotovoltaikoaren ekoizpenaren PFEZagatiko diru-bilketan izan den eraginari dagokionez (PES-165). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak (PFEZ) subjektu pasiboak errenta lortzea kargatzen du, errentaren osagaien bitartez: lanaren etekinen, kapitalaren etekinen, enpresa edo lanbide jardueren etekinen, ondare gehitze eta gutxitzeen eta errenta eratzkitze eta egozteen bitartez.

Hala, energia fotovoltaikoaren ekoizleek lortzen dituzten etekinak enpresa jardueren etekintzat kalifikatzen dira, eta PFEZaren zerga-oinarrian sartu behar dira, ekoizle horiek lortutako gainerako errentekin batera.

Energia fotovoltaikoaren ekoizlearen PFEZeko zorra kalkulatzeko, errentaren osagai guztiak zerga-oinarrian sartu, kenkariak aplikatu, eta zerga horretan aurreikusten diren norberaren eta familiaren inguruabar zehatzak erantsi behar dira.

Beraz, PFEZaren osaerari eta likidazioari dagokienez, energia fotovoltaikoaren ekoizpenaren arloan zergen ikuspuntutik egin daitekeen analisisia "enpresa jarduera" osagaia aztertzearen emaitza besterik ez da.

Hori dela eta, gogora ekarri behar da nola zehazten den osagai horren etekin garbia: jardueran lortutako diru sarreren eta horiek lortzeko egin

behar izan diren gastu kengarrien arteko kenketa egiten da.

Ondorioz, ezin da zenbatetsi uztailearen 12ko 9/2013 Errege Dekretuak PFEZagatiko diru-bilketan izanen duen eragina. Izatekotan, enpresa jardueraren etekin garbian izanen duen eragina zenbatets liteke, eta horretarako energia fotovoltaikoaren ekoizleak lortuko dituen diru sarrerak eta sortuko zaizkion gastuak zenbatetsi behar lirateke, baina hori ezin da iragarri.

2. Nolanahi ere, ERANSKINEAN 2007tik 2011ra bitarteko zergaldietako PFEZaren datu multzokatuak jaso dira. Bertan ageri da energia fotovoltaikoa ekoizteko jardueratik ateratako etekin

garbia, PFEZaren aitortpenaren inprimakiko 3. orrialdeko (enpresa, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza jardueren etekin garbien kalkulua zuzeneko zenbatespenaren araubidean) 201, 223 edo 245 laukian jarduera ekonomikoen gaineko zergaren (JEZ) edo lizentzia fiskalaren tarifen 1. ataleko "151.4" epigrafea jarri duten aitortzaileen kasuan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

PFEZa-2007		
201, 223 edo 245 laukian 1 151.4 epigrafea jarri dutenak 3 zutabeen batura. Eratzikipena % 100 eta \approx % 100		
Etekin garbia zehazteko magnitudea	Aitortzaileen kop.	Zenbatekoa* Eratzikipena (%)
DIRU-SARRERA OSOAK	2733	22.092.908,48
Langileen kostua	1	1.197,90
Titularraren Gizarte Segurantzako gastua	7	20.669,68
Lehengaien kontsumoko gastua	54	104.199,58
Atxikitako elementuak amortizatzeko gastua	2760	28.400.865,42
Askotariko gastuak	3030	8.623.741,18
Errentamendu gastuak	14	875,56
10/96 FLrengatiko gastuak	233	445.374,19
GASTU KENGARRIAK, GUZTIRA	3254	37.596.923,66
DIRU SARRERAK - GASTU KENGARRIAK	3265	- 15.504.014,70
% 5 ZUZ. ZENB. ERRAZTUA	173	25.864,21
ETEKIN GARBI ERATXIKIGARRIA EEAEetako berriazko gastuengatiko doitzeen ondoren	3248	- 15.524.694,42

Zenbatekoa * Eratzikipena: magnitude bakoitzaren zenbatekoa da, eratzikipen - araubideko entitate bateko (sozietate irregularrak) kide diren aitortzaileen eratzikipen - portzentajea aplikatuta
Alegia, **aitorpen bakoitzerako, biderketa egiten da** magnitudean jarritako zenbatekoaren eta aitortpeneko **219, 241 edo 262 kodean jarritako portzentajea ren** artean.

PFEZa-2008		
201, 223 edo 245 laukian 1 151.4 epigrafea jarri dutenak <i>3 zutabeen batura. Eratzikipena % 100 eta \approx % 100</i>		
Etekin garbia zehazteko magnitudea	Aitortzaileen kop.	Zenbatekoa* Eratzikipena (%)
DIRU-SARRERA OSOAK	5159	37.346.747,67
Langileen kostua	7	16.810,97
Titularraren Gizarte Segurantzako gastua	8	14.324,72
Lehengaien kontsumoko gastua	198	277.944,68
Atxikitako elementuak amortizatzeko gastua	4952	55.407.970,13
Askotariko gastuak	4839	17.417.474,55
Errentamendu gastuak	13	7.107,68
10/96 FLrengatiko gastuak	361	1.068.553,95
GASTU KENGARRIAK, GUZTIRA	5112	74.210.187,62
DIRU SARRERAK - GASTU KENGARRIAK	5223	- 36.863.436,85
% 5 ZUZ. ZENB. ERRAZTUA	292	28.152,55
ETEKIN GARBI ERATXIKIGARRIA EEA Eetako berariazko gastuengatiko doitzeen ondoren	5223	- 37.579.249,38

Zenbatekoa * Eratzikipena: magnitude bakoitzaren zenbatekoa da, eratzikipen - araubideko entitate bateko (sozietate irregularrak) kide diren aitortzaileen eratzikipen - portzentajea aplikatuta
Alegia, **aitorpen bakoitzerako, biderketa egiten da** magnitudean jarritako zenbatekoaren eta aitortzeneko **219, 241 edo 262 kodean jarritako portzentajearen** artean.

PFEZa-2009		
201, 223 edo 245 laukian 1 151.4 epigrafea jarri dutenak <i>3 zutabeen batura. Eratzikipena % 100 eta \approx % 100</i>		
Etekin garbia zehazteko magnitudea	Aitortzaileen kop.	Zenbatekoa* Eratzikipena (%)
DIRU-SARRERA OSOAK	5189	60.657.149,55
Langileen kostua	4	604,27
Titularraren Gizarte Segurantzako gastua	11	19.047,00
Lehengaien kontsumoko gastua	170	255.833,39
Atxikitako elementuak amortizatzeko gastua	4962	73.330.675,31
Askotariko gastuak	4861	18.082.374,24
Errentamendu gastuak	14	5.025,19
10/96 FLrengatiko gastuak	371	1.018.393,26
GASTU KENGARRIAK, GUZTIRA	5079	92.711.953,19
DIRU SARRERAK - GASTU KENGARRIAK	5203	- 32.054.800,99
% 5 ZUZ. ZENB. ERRAZTUA	434	52.707,33
ETEKIN GARBI ERATXIKIGARRIA EEA Eetako berariazko gastuengatiko doitzeen ondoren	5203	- 32.939.582,80

Zenbatekoa * Eratzikipena: magnitude bakoitzaren zenbatekoa da, eratzikipen - araubideko entitate bateko (sozietate irregularrak) kide diren aitortzaileen eratzikipen - portzentajea aplikatuta
Alegia, **aitorpen bakoitzerako, biderketa egiten da** magnitudean jarritako zenbatekoaren eta aitortzeneko **219, 241 edo 262 kodean jarritako portzentajearen** artean.

PFEZa-2010		
201, 223 edo 245 laukian 1 151.4 epigrafea jarri dutenak <i>3 zutabeen batura. Eratzikipena % 100 eta ~ = % 100</i>		
Etekin garbia zehazteko magnitudea	Aitortzaileen kop.	Zenbatekoa* Eratzikipena (%)
DIRU-SARRERA OSOAK	5264	57.723.218,67
Langileen kostua	1	-
Titularren Gizarte Segurantzako gastua	9	28.948,34
Lehengaien kontsumoko gastua	208	304.148,16
Atxikitako elementuak amortizatzeko gastua	5006	75.153.879,30
Askotariko gastuak	4889	12.569.301,26
Errentamendu gastuak	22	3.087,37
10/96 FLrengatiko gastuak	360	618.868,11
GASTU KENGARRIAK, GUZTIRA	5146	88.678.233,20
DIRU SARRERAK - GASTU KENGARRIAK	5315	- 30.955.011,48
% 5 ZUZ. ZENB. ERRAZTUA	560	70.184,82
ETEKIN GARBI ERATXIKIGARRIA EEA Eetako berariazko gastuengatiko doitzeen ondoren	5317	- 31.373.059,16

Zenbatekoa * Eratzikipena: magnitude bakoitzaren zenbatekoa da, eratzikipen - araubideko entitate bateko (sozietate irregularrak) kide diren aitortzaileen eratzikipen - portzentajea aplikatuta Alegia, **aitorpen bakoitzerako, biderketa egiten da** magnitudean jarritako zenbatekoaren eta aitoreneko **219, 241 edo 262 kodean jarritako portzentajearen** artean.

PFEZa-2011		
201, 223 edo 245 laukian 1 151.4 epigrafea jarri dutenak <i>3 zutabeen batura. Eratzikipena % 100 eta ~ = % 100</i>		
Etekin garbia zehazteko magnitudea	Aitortzaileen kop.	Zenbatekoa* Eratzikipena (%)
DIRU-SARRERA OSOAK	5300	55.838.799,21
Langileen kostua	2	122,62
Titularren Gizarte Segurantzako gastua	14	54.037,71
Lehengaien kontsumoko gastua	204	357.485,80
Atxikitako elementuak amortizatzeko gastua	4892	71.220.557,21
Askotariko gastuak	4900	12.359.505,71
Errentamendu gastuak	21	24.172,94
10/96 FLrengatiko gastuak	386	795.616,15
GASTU KENGARRIAK, GUZTIRA	5159	84.811.499,08
DIRU SARRERAK - GASTU KENGARRIAK	5332	- 28.972.696,67
% 5 ZUZ. ZENB. ERRAZTUA	843	113.656,74
ETEKIN GARBI ERATXIKIGARRIA EEA Eetako berariazko gastuengatiko doitzeen ondoren	5332	- 29.450.259,37

Zenbatekoa * Eratzikipena: magnitude bakoitzaren zenbatekoa da, eratzikipen - araubideko entitate bateko (sozietate irregularrak) kide diren aitortzaileen eratzikipen - portzentajea aplikatuta Alegia, **aitorpen bakoitzerako, biderketa egiten da** magnitudean jarritako zenbatekoaren eta aitoreneko **219, 241 edo 262 kodean jarritako portzentajearen** artean.

Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretua onesteak energia fotovoltaiakoaren ekoizpenaren BEZagatiko diru-bilketan izanen duen eraginari dagokionez.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, azaltzekoa zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretua onesteak energia fotovoltaiakoaren ekoizpenaren BEZagatiko diru-bilketan izanen duen eraginari dagokionez, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakitekoa zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretua onesteak energia fotovoltaiakoaren ekoizpenaren BEZagatiko diru-bilketan izanen duen eraginari dagokionez (PES-166). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

1. Ezin da zenbatetsi uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretuak BEZagatiko diru-bilketan izanen duen eragina, ezin direlako iragarri energia fotovoltaiakoaren ekoizleen hurrengo bost urteetako BEZ jasanaraziaren eta BEZ kengarriaren oinarriak.

2. Nolanahi ere, ERANSKINEAN 2007tik 2011ra bitarteko zergaldietako BEZaren datu multzokatuak jaso dira. Bertan ageri da jarduera eko-

nomikoen gaineko zergaren epigrafe bakar batean alta emanda dauden pertsona fisikoei eta sozietate irregularrei (errenta-eratzikipenaren araubideko entitateak) "zergaldian ateratzen zaien kuota" (BEZaren aitortzenetako 61 laukia). Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren epigrafe hori tarifen 1. ataleko "151.4" epigrafe da (Aurreko epigrafeetan zehaztu gabeko energiaren ekoizpena, energia eolikoa, eguzki energia, e.a.).

Hori dela eta, ohartarazi behar da aitortzaileak BEZaren kargapeko jarduera bat baino gehiago egiten dituen BEZaren aitortzenaren kodifikazioan ezin dela bereizi kuota bakoitza zein jarduerari dagokion. Kodetutako kuota jarduera guztiei dagokien kuota da.

Ondorioz, aurkeztu diren datuak energia fotovoltaiakoaren ekoizleetako batzuei bakarrik dagozkie: BEZaren kargapeko beste jarduerarik egiten ez dutenei.

Ez datoz bat, beraz, parlamentari berak PFEZari buruz aurkeztutako galderari erantzunez egindako ustiapenarekin. Azken zerga horretan, aurkeztu diren datuak PFEZaren aitortzenaren energia fotovoltaiakoa ekoizten dutela jarri duten guztiei dagozkie, berdin da beste jardueraren bat egiten duten ala ez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

BEZa		
Pertsona fisikoak eta sozietate irregularrak JEZe 1 151.4 epigrafe jarri dute EZ DUTE BESTE JARDUERARIK		
	Aitortzaileen kop.	61 laukiko zenbatekoa
2007	2.756	- 10.979.802,81
2008	3.746	- 17.696.609,80
2009	3.770	5.250.757,20
2010	3.784	5.710.158,43
2011	3.789	5.916.415,66

Galdera, 2011ri dagokion biztanle bakoitzeko zerga-presioaren datuari buruzkoa, 2012ko kontu orokorretan jasotakoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, 2011ri dagokion biztanle bakoitzeko zerga-presioaren datuari buruzkoa, 2012ko kontu orokorretan jasotakoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 2011ri dagokion biztanle bakoitzeko zerga-presioaren datuari buruz (PES-168). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak: Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Egindako galderari dagokionez, esan beharra dago galderan aipatutako adierazlea lortzeko kontuan hartutako datuak zuzeneko eta zeharkako zergetako eskubide likidatu garbiei dagozkionak direla, baita 30. artikulukoak ere (tasa fiskalak). Hona hemen magnitude horiek 2011ko ekitaldian izan zuten balioa, urte horretako Kontu Orokorretan jasotakoa:

Zuzeneko zergak (1. kapitulua): 1.620.536.374 euro (laburpen orokorraren 52. orrialdea)

Zeharkako zergak (2. kapitulua): 1.644.827.950 euro (laburpen orokorraren 54. orrialdea)

Tasa fiskalak (30. artikulua): 14.641.958 euro (laburpen orokorraren 56. orrialdea)

GUZTIRA: 3.280.006.282 euro

Zenbateko hori urte horretako Nafarroako biztanle konputagarrien kopuruaz (642.051) zatituta, biztanle bakoitzeko 5.109 euroko emaitza lortzen da, 2011ko Kontu Orokorretan ageri dena.

Kalkulu hori bera eginda 2012ko ekitaldirako, biztanle bakoitzeko 4.575 euroko emaitza ateratzen da. Bi magnitudeen arteko konparagarritasunari begira, ordea, kontuan hartu behar da 2011ko ekitaldian zerga-onurak gastuetako kontusail gisa sartu zirela aurrekontuan. Beraz, diru sarrerak handiagoak ziren. 2012an zerga-onurak ez ziren aurrekontuan sartu eta urte horretako Kontuetan zuzendu egin zen 2011ko diru sarreraren datua, konparazioak homogeneoak izan zitezen, baina errore baten ondorioz ez zen aldatu biztanle bakoitzeko zerga-presioaren emaitza: 4.624 eurokoa behar zuen, 2012ko Kontuetan 2011ko diru sarrerei dagokienez ageri diren datuak berak hartuta. Gogoan izan behar da 1. kapituluko eskubide likidatuen 2011ko balioa (1.620,5 milioi euro), behin zerga-onuren zenbatekoa kenduta, 1.309,3 milioira jaisten dela; balio horixe hartu behar da 2011ko adierazlea lortzeko, 2012ko ekitaldiarekiko konparaziorako.

Beraz, biztanle bakoitzeko 2011ko zerga-presioaren zenbatekoak, 2012ko Kontu Orokorretan ageri denak, biztanle bakoitzeko 4.624 eurokoa izan behar du.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 10ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Reyno Gourmetek 2013ko urtarriletik urrira bitartean gauzatu-tako ekimenei eta 2013ko urritik abendura bitarterako aurreikusitako jarduera-egutegiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Reyno Gourmetek 2013ko urtarriletik urrira bitartean gauzatu-tako ekimenei eta 2013ko urritik abendura bitarterako aurreikusitako jarduera-egutegiari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak gai honi buruzko galdera egin du idatziz:

– Reyno Gourmetek 2013ko urtarriletik urrira bitartean gauzatu-tako ekimenak eta 2013ko urritik abendura bitarterako aurreikusitako jarduera-egutegia.

(8-13/PES-00169)

Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingarumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

A. SUSTAPEN EKINTZAK

INTIA - Reyno Gourmeteko Elikagaien Atalaren sustapen lana lau arlotara bideratu da. Arlo horiek oinarritzat eta estrategikotzat jotzen dira gure helburu nagusiak lortzeko, alegia, marka garatu eta ezagutarazteko eta markaren babesean dau-den produktuen salmentak bultzatzeko.

Hauek dira lau jarduketa-arloak:

- 1.- Nekazaritzako elikagaien azokak
- 2.- Ekitaldiak eta babesletza
- 3.- Ekintzak salmenta guneeetan
- 4.- Komunikazioa

2013. urtean honako ekintza hauek garatu eta aurreikusi dira arlo horietako bakoitzean:

1.- Nekazaritzako elikagaien azokak:

URTARRILETIK URRIRA ARTE

a. Madrid Fusión biltzarra:

– Azoka-biltzarra, Madrilen. Erakundeek parte hartu zuten

– Urtarrilaren 21etik 23ra bitartean egin zen

– Tokia: 12 m²

b. Prowein:

– Ardo azoka, Düsseldorf. Hainbat enpresak parte hartu zuten

– Martxoaren 24tik 26ra bitartean egin zen

– Tokia: 116 m²

– 13 enpresa, bakoitza 7m²-ko standean

c. Gourmet aretoa

– Azoka, Madrilen. Hainbat enpresak parte hartu zuten

– 2013ko apirilaren 8tik 10era bitartean egin zen

– Tokia: 216 m²

– 13 enpresa, bakoitza 12 m²-ko standean

URRITIK AURRERA:

d. San Sebastián Gastronomika:

– Azoka-biltzarra, Donostian. Erakundeek parte hartu zuten

– Urriaren 7tik 9ra bitartean egin zen

– Tokia: 24 m²

e. Fruit Attraction:

– Produktu freskoetan espezializatutako azoka, Madrilen. Erakundeek parte hartu zuten

– Urriaren 16tik 18ra bitartean egin zen

– Tokia: 71 m²

– 3 enpresak parte hartu zuten, horietako bik 24,5 m² izan zituzten eta besteak 11,5 m².

2.- Ekitaldiak eta babesletzak:

a. Ekitaldiak:

URTARRILETIK URRIRA ARTE

– Nafarroako RG hornitzaileen topaketa eta azoka Gazteluko plazan, Eroskiren lankidetzarekin

- Zuzeneko parte-hartzea Reyno de Navarra Landa Turismo Nazioarteko Biltzarrean-RGren aurkezpena
- RG produktuei buruzko lantegiak jendearentzat Gurbindo Etxean, El Corte Inglés eta Eroskin
- Vinofest Iruña
- “Elikadura osasungarriari buruzko solasaldiak”, Eroskiko kontsumitzaileentzat
- Nafarroako zaporea duten istorioak, Eroskiko kontsumitzaileentzat
- Dastaketak Done Jakue Bidean, erromesentzat
- Vinofest Donostia
- RG produktuen aurkezpenak Munichen eta Hanburgon, profesionalentzat, Nafarroako jatorri-deituraren ekintza bati lagunduz
- Nafarroako Patxaranaren kanpainaren aurkezpena: "Patxaranak badu bere puntua"
- Nafarroako Ardoaren Kofradiarekiko lankidetzaren Nafarroako jatorri-deiturako ardoen lehiaketan
- Nariz de Oro lehiaketako finala Madrilen
- Reyno Gourmet Gastronomia Eguna E.Lecercen
- Zitudadela Gourmet azoka: RGko 11 enpresa izan ziren. Salmenta zuzena. Produktua ikusgai gastrotabernan.

URRITIK AURRERA:

- Reyno Gourmet produktuei buruzko lantegiak El Corte Inglés
- “Eragile (blogari) gastronomikoekiko topaketa” Donostian
- La Nuit - Iruñeko II. Zabalgunea
- Denomina 13 – Upategien ardo dastaketak eta argazki lehiaketa La Morean
- BCCko ikasleek RG enpresetara egindako bisitaren antolaketa
- Nafarroako Carrefour sarien banaketa
- Artzai Gazta lehiaketa eta azoka. Idiazabal gaztaren zuzeneko salmenta
- “Reyno Gourmet” osteguna Iruñeko hainbat tabernatan

b. Babesletzak: batik bat, Reyno Gourmet produktuak ematea, horrela Nafarroako enpresak babestuz.

URTARRILETIK URRIRA ARTE

- Lankidetzaren Erremonte Fundazioarekin, kirol horren garapena sustatzeko
- “Igeri egiten gaixotasun arraroen ondoan”
- Entzierroaren argazkien IV. Nazioarteko Lehiaketa, profesionalentzat
- VII. Ruanda Herri Lasterketa Solidarioa
- XXXII. Iruña Hiriko Maratoi Erdia
- II. Iruña Hiriko Lasterketa – 10 km
- Hiru Herri herri lasterketa
- Sukaldari gazteen lehiaketarako lankidetzaren, Napardik sustatua
- Zale sutsuentzako lantegiak Basque Culinary Centerren
- Burlatako Kultur Etxeak antolatutako artista ospetsuen kontzertuak
- Miniaturako Sukaldaritzaren III. Tunel Berdea, Tuteran
- Nafarroako VIII. Gastronomia Jardunaldiak
- Orden Volatín
- Barazkien jardunaldiak Tuteran
- EAE-Nafarroako 6. Golf Txapelketa
- Artzai Eguna 2013
- Nafarroako Txistor Lehiaketa
- “Reyno de Navarra” liburua

URRITIK AURRERA:

- Orreaga-Zubiri maratoi erdiaren VIII. edizioa
- A.C. Sarriguren – 10 km
- Adona ekitaldia
- Gurutze Gorria ekitaldia
- Udazkeneko modaren desfilea. El Corte Inglés
- Anaitasuna eskubaloi txapelketa
- *Imagina Cuántas palabras* liburua

3.- Ekintzak salmenta guneetan:

URTARRILETIK URRIRA ARTE:

- Produktuaren aurkezpenak E. Leclercen eta Eroskin - salmenta aretoa
- Sustapena AT, EN eta PPLko 50 establezimendutan, Europako proiektu baten barruan.

- Nafarroako ETEen eta Reyno Gourmeten kanpaina Carrefour taldearen Nafarroako zentroetan
- “Bizi ezazu Nafarroa” kanpaina eta RG produktuak Nafarroako Eroski zentroetan
- “Bizi ezazu Nafarroa” kanpaina eta RG produktuak Nafarroako Eroski zentroetan
- Vinofest Donostia: sustapen ekintza Gipuzkoako marka nagusien (Uvesco, Eroski, Alcampo eta Solbes) 34 saltokitan
- “Navarricos” kanpaina Capraborekin lankidetzan, Nafarroan
- RG produktuen identifikazio iraunkorra Nafarroako janari denda nagusietan

URRITIK AURRERA:

- RG produktuen kanpaina Gipuzkoako Super Amara dendetan: Nafarroa, egiazko gauzen balioa
- Nafarroa jatorri-deiturako ardoen eta Erronkari eta Idiazabal gazten kanpaina Iruñeko E. Leclercen - Denomina 13
- RG produktuen kanpaina - Nafarroa, egiazko gauzen balioa – “Irabazi urtebeteko hipoteka” Eremu nazionalekoa, eta berariaz egina EAeko eta Nafarroako marka nagusien (Alcampo, Uvesco, Eroski, Caprabo, El Corte Inglés, E. Leclerc, Solbes eta Carrefour) 65 establezimendutan.
- Leku berezia Nafarroako lehenbiziko Hiperacor zentroaren inaugurazioan
- RG kanpaina berezia liburuxka eta guzti, E. Leclercen
- Nafarroako zainzuriaren kanpaina Espainiako 12 "El Club del Gourmet" dendatan.

4.- Komunikazioa:

a. Ohiko komunikazioa:

URRIRA ARTE

i. Iragarkiak idatzizko komunikabideetan:

- Sanfermines 204 horas aldizkaria
- Diario de Noticias: 2x2ko 3 iragarki, Sanferminetako argitalpen berezia eta Barazkien Gorazarrea argitalpen berezia
- Diario de Navarra: 2x2ko 3 iragarki, Sanferminetako argitalpen berezia eta Tuterako barazkiei buruzko argitalpen berezia
- Consebro aldizkaria: 4 iragarki

- Nafarroako landa ostatuaren gida
- Foresna, Plaza Nueva, Jai Berri, Conocer Navarra, La Voz de la Ribera eta Tudeocio aldizkariak.

ii. Irratia:

- Onda Cero: iragarkiak Sanferminetan
 - Cope/Cadena 100: iragarkiak Sanferminetan
 - Iruñeko SER: iragarkiak Sanferminetan
 - Gipuzkoako SER: iragarkiak Vinofesten
- b. Kanpoko komunikazioa:
- Iragarkia Iruñeko zezen-plazako aparkalekuko txarteletan, urte osoan
 - Iruñeko planoan El Corte Inglésekin lankidetzan (urtekoa)

- Iruñeko markesinak: 5 hamabostaldi

- Autobusen aparkalekuko hesia (urtekoa)

- E. Leclerceko aparkalekuko orga-euskarria (urtekoa)

c. On line komunikazioa:

- Mantentzea eta etenik gabe garatzea www.reynogourmet.com webgunea, FB, Twitter, Youtube eta Flickr sare sozialak biltzen dituen 2.0 plataforma gisa (urtekoa).
- Lankidetzeta Qcom.es banaketaren arloko egunkari digitalarekin (urtekoa)
- Lankidetzeta www.diariodegastronomia.com egunkariarekin (urtekoa)

URRITIK AURRERA AURREIKUSIAK:

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez lehiaketa publikoa egin ondoren, urriaren 1etik aurrera komunikaziorako eta salmenta gune-etako ekintzarako kanpaina berri bat abiatu dugu (gorago jaso), “NAFARROA, EGIAZKO GAUZEN BALIOA” esloganaren pean. Kanpaina berriaren zabalkunderako jarduketa hauek aurreikusten dira komunikazioaren arloan:

a. Ohiko komunikazioa:

ii. Iragarkiak idatzizko komunikabideetan:

- Nafarroako *Diario de Noticias*: 2x2ko 6 iragarki
- Gipuzkoako *Diario de Noticias*: 2 iragarki
- Arabako *Diario de Noticias*: 2 iragarki
- *Diario de Navarra*: 2x2ko 6 iragarki
- *Deia*: 2 iragarki

iii. Irratia:

- Iruñeko eta EAeko Onda Cero: guztira 96 iragarki
- Cope/Cadena 100: 90 iragarki
- Iruñeko eta EAeko SER: guztira 100 iragarki
- Radio Euskadi: 30 iragarki

b. Kanpoko komunikazioa:

- Iruñeko markesinak: 2 hamabostaldi

c. On line komunikazioa:

- Zozketa kanpaina berezia FBn eta Twitterren
- Kanpainako bideoa egitea sareetan zabaltzeko
- Redcomiendo
- Bannerra *Navarra Agraria* aldizkari digitalean

B. KONTROL JARDUERAK

Markaren erabilerari buruzko Erregelamendua-ren 8. artikulua betez, kontrol bisita berezia egin zaie produktueterako baimena eskatu duten

enpresei, 4.3 artikuluan ("Kalitatea bermatzeko erreferentziak edo arauak") ezarritakoarekin bat.

Gainerako produktuei aldian behingo kontrolak egiten dizkiete kalitate-marka bakoitzaren ikuska-tzaileek.

Egindako auditoriak:

- El Caserío, S.A. 2013ko maiatzaren 8an
- Caviar Per Sè, S.L. 2013ko irailaren 17an

Hemendik aurrera jarraituko da ezarritako kontrola aplikatzen 4.3 edo 4.4 artikuluen arabera inskripzioa eskatzen duten enpresei, bai eta artikuluhorietan ezarritako bidetik baimena berritzeko eskaera aurkezten duten enpresei ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua-ren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 8an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako liburutegi publikoetan azken bost urteotan kontraturiko langileei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako liburutegi publikoetan azken bost urteotan kontraturiko langileei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako liburutegi publikoetan azken bost urteotan kontraturiko langileen bilakaerari buruz (PES 171/2013). Hauxe erantzun dio Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

Zer bilakaera izan du Nafarroako liburutegi publikoetan azken bost urteotan kontraturiko langile kopuruak?

Hona hemen azken bost urteotan Liburutegien Zerbitzuari atxikitako langileen kopuruak urtez urte:

Langile mota	Urtea				
	2013	2012	2011	2010	2009
1. Finkoak	105,01	102,88	98,45	101,51	92,89
2. Aldi baterakoak	23,73	26,87	33,12	29,71	38,79
Guztira	128,73	129,75	131,57	131,22	131,68

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, etxean arreta edo premiazko laguntza behar duen pertsona gaixo bat artatzeko protokoloari buruzkoa, Nafarroako Unibertsitateko langileei osasun-laguntza emateko hitzarmenarekin lotuta.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egingako galderaren erantzuna, etxean arreta edo premiazko laguntza behar duen pertsona gaixo bat artatzeko protokoloari buruzkoa, Nafarroako Unibertsitateko langileei osasun-laguntza emateko hitzarmenarekin lotuta, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 31ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak idatziz erantzuteko galdera hau egin du: "'Nafarroako Unibertsitateko langileei osasun laguntza emateko hitzarmena' izeneko hitzarmenari buruz, eta kontuan hartuta 'Nafarroako Unibertsitatea' Klinikak ez daukala ez etxeko laguntza zerbitzurik ez larrialdietako klinikatik kanpoko zerbitzurik, zein da etxeko laguntza zerbitzua edo larrialdi-zerbitzua etxean behar duen gaixo bat -esate baterako, zainketa aringarriak behar dituen gaixo onkologiko bat- artatzeko protokoloa?" (8-13/PES-00179). Hauxe erantzun

dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak.

- Larrialdietako laguntza medikoa etxean behar duten gaixoentzat, 112 telefonora deitzen da. Gaixoak ospitaleratu beharra badu, CUNera eramainen dute.

- Zainketa aringarriak etxean behar dituzten gaixoentzat, "Nafarroako Unibertsitatea" Klinikak lankidetzat hitzarmena sinatu du San Juan de Dios ospitalearekin zerbitzu horretarako.

- Jaioberrientzat, protokolo batean ezarrita dago CUNeko langileek erizaintzako bisita egitea etxera, jaio ondoko lehenengo egunetan.

- Klinikara joan ezin direlako laguntza medikoa etxean behar duten gaixoentzat, sendagileen irizpidearen arabera, laguntza hori gaixoarekin eta haren senideekin batera antolatzen da, eta horretarako eskaera egin behar diote CUNeko Familia Medikuntzako Zerbitzuari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 13an

Osasun kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, entitate publikoetako izaera pertsonaleko fitxategiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak egindako galderaren erantzuna, entitate publikoetako izaera pertsonaleko fitxategiei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako Eloy Villanueva Cruz jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du entitate publikoetako izaera pertsonaleko fitxategiei buruz (PES-184). Hauxe erantzun dio Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak:

1. Datu pertsonalen babesaren arloko arau indardunek autonomia erkidegoei eginkizun batzuk esleitzen dizkiete, autonomia erkidegoek berek edo horien lurraldeetako toki administrazioek sortzen edo kudeatzen dituzten datu-fitxategien kudeaketari dagokionez. Nafarroako Gobernuak

inoiz ez dio uko egin eginkizun horietan aritzeari hala behar balitz.

2. Ez dago Nafarroako Gobernuaren ebazpenik datuak babesteko Nafarroako agentziarik ez sortzea erabakitzen duenik.

3. Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 37. artikulua dio Datuak Babesteko Espainiako Agentziari dagokio la datuen babesari buruzko legeria betetzen dela jagotea eta legeria horren aplikazioa kontrolatzea; halaber, izaera pertsonaleko datuen fitxategiak egon badaudela iragartzen dela jagotea, eta horretarako aldi-aldi argitaratzea halako fitxategien zerrenda; orobat, zehatzeko ahalmena egitaritza.

Nafarroako Gobernuak gaur egun ez du datuak babesteko foru organo bat sortzeko aukerarik aurreikusten, baina beti izanen du aukera bere jarduketak Datuak Babesteko Espainiako Agentziarekin koordinatzeko bi erakundeen intereseko gai orotan.

Iruñean, 2013ko azaroaren 15ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lan egiten duten edo prestakuntzan ari diren barruko mediku egoiliar atzerritarrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maite Esporrín Las Heras jaunak egindako galderaren erantzuna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lan egiten duten edo prestakuntzan ari diren barruko mediku egoiliar atzerritarrei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Heras andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Europar Batasunetik kanpoko BAME medikuei buruz (8-13/PES-00172). Hauxe erantzun du Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

1. Lehenbiziko galdera: atzerriko zenbat BAME ari diren lan egiten eta prestatzen aurten Nafarroako Osasun Zerbitzuan. Guztira 74 dira.

2. Bigarren galdera: hirugarren urteko zenbat BAME ari diren lan egiten eta prestatzen aurten Nafarroako Osasun Zerbitzuan, naziokoak eta

Europar Batasunekoak berezita. Guztira 65 dira (Espainiako 64 eta Frantziako 1).

3. Hirugarren galdera: zer lan-itun edo -arau aplikatu behar zaien, eta denei, naziokoei nahiz atzerritarrei, araudi bera aplikatzen zaien. Jatorria edozein izanda ere araudi bera aplikatzen zaie Nafarroako Foru Komunitateko langile guztiei, horien artean Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin Osasun Zientzietako espezialisten prestakuntzarako egoiliartasun-harreman berezia sinatu dutenei.

Hauek dira arau aplikagarriak:

- Urriaren 6ko 1146/2006 Errege Dekretua, Osasun Zientzietako espezialisten prestakuntzarako egoiliartasuneko lan-harreman berezia arautzen duena.

- Otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretua, Osasun Zientzietako espezialitateak zehazten eta

sailkatzen dituen eta osasun arloko prestakuntza espezializatuko sistemaren zenbait alderdi garatzen dituen.

- "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Prestakuntzako Lanbide Egoiliarren" itun kolektiboa, 2008ko 14. NAOn argitaratua, urtarrilaren 30ekoan.

- Ordezko gisa, abenduaren 16ko 55/2003 Legea, Osasun Zerbitzuetako Langile Estatutudunen Esparru Estatutuari buruzkoa.

4. Laugarren galdera: zein da hirugarren urteko BAME baten urteko lansari gordina? Xehakatu PFEZa, langabezia nahiz bestelako lansari-kontzeptu batzuk direla-eta ordaindutako zenbatekoak. Adierazi ea denei –naziokoei nahiz atzerritarrei– aplikatzen zaizkien deskontu berberak, kontzeptu berberak eta zenbateko berberak. Urteko lansari hau aplikatzen zaie BAME guztiei, jatorria gorabehera:

FINKOA:

Oinarrizko soldata: 15.526,7 euro

Prestakuntza mailako osagarria: 2.794,82 euro

Guztira: 18.321,52 euro urtean

ALDAKORRA: (guardien kopurua, araudi aplikagarriaren arabera)

Lanegunetako guardiak: 19,44 euro * 17= 330,48 euro

Larunbat, igande eta jaiegunetako guardiak: 19,44 euro * 24 = 466,56 euro

Kontingentzia arruntetarako kuotaren deskontua: kotizazio-onarriaren % 4,70

Langabeziarako kuota: kotizazio-onarriaren % 1,60 (*)

Lanbide prestakuntzarako kuota: kotizazio-onarriaren % 0,10

PFEZaren atxikipena: seme-alaben kopuruaren araberrako portzentajea

ege Dekretuaren

"Iraupen jakineko jardueretarako eta ikasleentzako lan-baimena duten atzerritarren kontratazioetan ezngentziarako kotizatuko". Horren ondorioz, Gizarte Segurantzari kuotak itzultzeko eskatuko zaio,

5. Bosgarren galdera: langile ikasle horiek urtero egiten dituzten lanordu arrunten kopurua.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan lanaldi orokorra duten langileentzat urteko egutegian ezarritako lanorduak egiten dituzte (2013an 1.592 lanordu).

6. Seigarren galdera: urtero egiten dituzten guardia-orduen kopurua, hilabetez hilabete xehakaturik. Hona hemen azken urteko taula:

Urtea	Hila	Guztira
	10	28745
	11	28216,5
	12	27990,76
Guztira, 2012		84952,26
	1	27990,52
	2	25810,28
	3	28931,8
	4	28084,24
	5	27546,38
	6	26033,16
	7	28657,02
	8	27500,76
	9	27311,64
Guztira, 2013		247865,8
Guztira		332818,06

7. Zazpigarren galdera: urteko aparteko orduen kopurua, baldin eta 2012an eta 2013an halakorik egin badute.

Ez dute ordu bat ere egin ez 2012an ez 2013an.

8. Zortzigarren galdera: zer espezialitatetan ari diren prestatzen, xehakaturik, hirugarren urteko BAMEak -naziokoak eta Europar Batasuneko atzerritarrak-

Espezialitatea	Naziokoak	atzerritarrak
ALERGOLOGIA	1	
ANALISI KLINIKOAK	1	
ANESTESIA ETA BIZKORTZEA	3	
DIGESTIO APARATUA	3	
KARDIOLOGIA	1	
KIRURGIA OROKORRA ETA DIG. APARATUKOA	1	
AURPEGI ETA AHOKO KIRURGIA		
KIR. ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIA	3	
KIRURGIA PEDIATRIKOA		
KIR. PLASTIKO, ESTETIKO ETA KONPONTZAILEA	1	
DERMATOLOGIA	1	
ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOA	1	
HEMATOLOGIA ETA HEMOTERAPIA	1	
FAMILIA MEDIKUNTZA	19	
MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOA		
MEDIKUNTZA INTENTSIBOA	1	
BARNE MEDIKUNTZA	9	
MEDIKUNTZA NUKLEARRA		
NEUMOLOGIA	1	
NEUROKIRURGIA	1	
NEUROFISIOLOGIA KLINIKOA	1	
NEUROLOGIA	2	
OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA	2	
OFTALMOLOGIA	2	
ONKOLOGIA MEDIKOA	1	
ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKOA	1	
OTORRINOLARINGOLOGIA		
PEDIATRIA ETA BERE ARLO BERARIAZKOAK	4	
PSIKIATRIA	2	1
ERRADIODIAGNOSTIKOA	1	
ERREUMATOLOGIA		
UROLOGIA		
GUZTIRA	64	1

9. Bederatzigarren galdera: zer alde egonen litzateke guztira, gastuari dagokionez, Europar Batasunetik kanpoko BAMEak egungo egoeran egonda ala eskatu duten aldaketa eginda?

384 euro * Hirugarren kurtsoan dauden Euro-par Batasunetik kanpoko 16 BAME = 6.144 euro, guztira.

10. Hamargarren galdera: behin prestakuntza aldia bukatuta, Europar Batasunetik kanpoko BAME-ek ez dute langabezia kobratzeko eskubiderik. Horrek salbuetsi egiten al du Nafarroako Gobernu langile horientatik langabezia ordaintzetik?

Hileko nominan langabeziarako kotizatzen ez duten langileek ez dute langabezia-prestaziorako eskubiderik izanen lan-harremana amaitzen denean.

11. galdera: zenbat pertsona kontratatuko ditu Estatuko Administrazioari 384 euroko tasa ez ordaintzeagatik aurreztutakoarekin? Zer mailatako kontratuak egingen ditu? Zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaie?

Administrazio Publikoak guztien interesak zaindu behar ditu eta eraginkortasun eta eragimen printzipioen arabera jardun behar du. Tasa hori ordaintzea langileriaren arloko alferrikako gastua litzateke, ez bailuke inolako onurarik ekarriko osasun zerbitzuaren kalitatearen aldetik. Diru kopuru hori beste profesional batzuen kontratazioa finantzatzeko erabil daiteke.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Ganasa sozietate publikoarena den Etxauriko haritz eta gerezi- zondo sailean eginiko gastuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Ganasa sozietate publikoarena den Etxauriko haritz eta gerezi- zondo sailean eginiko gastuei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ganasa sozietate publikoarena den Etxauriko haritz eta gerezi- zondo sailean eginiko gastuei buruz (8-13/PES-00173). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak:

1. Gestión Ambiental de Navarra, S.A. (GAN) sozietate publikoaren 2012ko ekitaldiko urteko kontu ikuskatuetako aktiboaren barruan eta, zehazki, izakinen epigrafean ageri den 3.378.773,82 euroko diru kopuruak, Etxauriko fin- kako sailari dagokionak, barruan hartzen ditu ber-

tan egindako gastu guztiak, salbu eta soil-soilik administratiboak direnak.

2. Echaury Forestal, S.L. enpresa Gestión Ambiental de Navarra, S.A.k xurgatu zuen Nafarroako Enpresa Sektore Publikoa Antolatze- ko eta Berregituratzeko I. Planaren barruan. Echaury Forestal, S.L. eratu zenetik haren urteko kontuak ikuskatu izan dira; kontu horietan ageri zen Etxauriko finkan egindako landaketari dagokion aktiboa.

3. Nafarroako Kontuen Ganberan, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak eskaturik, gaur egun fiskalizazio eta auditoria fasean dago, beste- ak beste, Etxauriko finkan egindako landaketari dagokion eragiketa, zeina Gestión Ambiental de Navarra, S.A. ren (GAN) aktiboetan baitago. Beraz, aipatutako foru erakundeak garaia denean egingen duen eta Nafarroako Parlamentuari berari igorriko zaion txostenari lotzen gatzaizkio.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par- lamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan eza- rritakoa betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako Zainketa Aringarrien Etxez Etxeko Laguntza Taldeari eta talde horrek eginiko jardunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Zainketa Aringarrien Etxez Etxeko Laguntza Taldeari eta talde horrek eginiko jardunari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Zainketa Aringarrien Etxez Etxeko Laguntza Taldeko medikuei eta talde horrek aurtengo uztailaren 1etik abuztuaren 15era bitarte eginiko jardunari buruz (8-13/PES-00175). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak:

1.- Adierazitako denboraldian egunero bi mediku eta hiru erizain aritu ziren etxez etxeko laguntzan, aste batean izan ezik; aste horretan mediku bakar batek lan egin zuen, profesionalen oporren garaia zelako eta ezustean beste sendagile batek gaixotasun baja hartu zuelako.

2.- Langileetako batzuk oporretan zeudenean sendagile batek gaixotasun baja hartu izanak.

3.- Inolaz ere ez.

4.- Inondik inora ere ez, azpimarratu behar dugu Etxez Etxeko Laguntza Taldearen lanak oinarrizko osasun laguntza indartzen duela. San Juan de Dios ospitaleko profesionalak gaixo baten etxera ez joateak ez du esan nahi gaixo hori laguntzarik gabe dagoenik, gaixoaren erreferentziako medikua eta erizaina prest daudelako hori egiteko eta beti edukiko dutelako gure EELTen laguntza telefonoz, Patxi Leuza jaunak aipatu duen Villafrancako gaixoaren kasuan gertatu zen bezala.

5.- Etxez Etxeko Laguntza Taldearen lana honela arautzen da: Iruñeko Metropolialdea, Nafarroako Iparraldea eta Ekialdea, Tuterako Erribera eta Lizarra dira oinarrizko laguntza-eremuak.

• Gaixo konplexuentzako eta senitartekoentzako zuzeneko laguntza eta jarraipena dira Nafarroako herritarrek gehien ezagutzen eta estimatzen duten jarduna, bere kalitateagatik eta gizatasunagatik bereizten gaituena, baina ez da hori Taldearen eginkizun bakarra. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko (O-NOZ) profesionalak laguntzeko bestelako lanak ere egiten dituzte, denak Itunean jasoa. Horietako batzuk aipatuko ditugu jarraian:

1. San Juan de Dios ospitaleko zainketa aringarrien programako langileen eta kasuan kasuko osasun zentroko onkologoaren arteko saio klinikorak.

2. Gaixoari berehalako ebaluazio ambulatorioak egitea San Juan de Dios ospitalean, O-NOZeko langileek eskatuz gero.

3. Telefonozko kontsultak gaueko 10ak arte, urteko egun guztietan, osasun etxeetako eta larrialdi zerbitzuko langileei laguntzeko.

4. Erizaintzako aholkuak telefonoz, 08:00etatik 15:00etara.

5. San Juan de Dios ospitaleko mediku eta/edo erizainak eta osasun etxeko langileak elkarrekin gaixoaren etxera joatea gaixoa baloratzeko eta ados jarrita zainketen plana egiteko.

6. Oinarrizko laguntzako langileei zainketa aringarrien gaineko prestakuntza eta aholkuak emateko lankidetzak.

7. Oinarrizko laguntzako zentroetako langileen prestakuntzaren eta irakaskuntzaren arloko adituen lantaldeko kideak dira.

Villafrancan iragan uztailaren 18an gertatutakoa dela-eta:

Hona hemen kasuaren balorazioa:

Orduan gaixoaren familia-medikua oporretan zegoen. Ordezko medikua ez zen Arloan aritu ohi zirenetakoa, baina, hori gorabehera, ongi artatu zuen gaixoa.

Izan ere mediku horrek egun hartan eskatu zuen EELTen laguntza, kontuan izanik ezen, aztertutako sintomen arabera, une hartan gaixoa ez zela programan sartzeko gai, eta bilakaera ikusitakoan programan sartuko zutela okerrera egiten bazuen. Gertaerak azkar jazo omen ziren.

Kontsultategitik beste profesional batek, behin ordezkapena amaituta, gaixoa artatu zuen modu koordinatuan eta familiarekin ados jarrita (alaba bat erizaina zen), bizitzaren azkenean mina kontrolatzeko analgesiarekin. Beraz, uste dugu ongi artatu zutela.

6.- Departamentuak osasun laguntza egokia eta kalitatezkoa sustatzen du eta laguntzaren kalitate hori bermatzen duen politika darabil osasun arloko langileen ordezkapenetan.

7.- Hona hemen azken bost urteetako informazioa, hots, batez beste zenbat egun behar izan diren gaixoari bisita egiteko:

URTEA	URT.	OTS.	MAR.	API.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRA.	URR.	AZA.	ABE.	BATEZ BESTE
2009	3,60	3,80	4,60	3,40	4,10	3,80	4,40	3,70	4,50	3,60	3,40	4,00	3,90
2010	3,90	4,30	4,50	4,70	3,63	2,70	2,63	3,92	3,80	4,90	4,40	4,90	4,02
2011	5,10	5,10	4,30	3,92	4,04	3,87	3,43	4,10	3,50	3,70	5,30	5,20	4,29
2012	5,32	4,88	4,92	4,48	4,15	4,41	5,88	5,13	5,16	5,60	5,50	5,00	5,03
2013	4,00	4,80	5,20	5,10	5,50	3,60	4,90	5,10	3,70				

8.- Txosten honetan azaldutako guztiagatik, berretsi egiten da bizitzaren azkenean gaixoak artatzeko lana Oinarrizko Laguntzaren eta EEL-Tren artean koordinatzen dela komunitate osoan, ongi hornituta dagoela materialez eta langilez, eta artatutako familien gogobetetasuna egiaztaturik dagoela. Etengabeko hobekuntzaren kulturak gidatzen ditu gure erakundearen balioak eta ildo

horri eutsiko diogu gure gaixoentzako laguntza egunez egun hobetzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, “Montepio orokorretik toki entitateentzako transferentziak, haien finantzaketarako” eta “Iruñeko, Tuterako eta Tafallako Udaletarako transferentziak” izeneko kontusailak finantzatu behar dituen kontusaileko diru-sarrera handiagoen jatorriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maite Esporrín Las Heras andreak egindako galderaren erantzuna, “Montepio orokorretik toki entitateentzako transferentziak, haien finantzaketarako” eta “Iruñeko, Tuterako eta Tafallako Udaletarako transferentziak” izeneko kontusailak finantzatu behar dituen kontusaileko diru-sarrera handiagoen jatorriari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Heras andreak idatziz erantzuteko galdera egin du aurrekontu-aldaketa baten arrazoiei buruz (PES 176/2013). Hau erantzun dio Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

Zer jatorri dute aurrekontu-aldaketa horren bidez finantzatu den kontusaileko diru-sarrera erreal handiagok?

“Beste diru-sarrera batzuk” izeneko 020002-04100-3990-000000 kontusailan egindako diru-sarreraren kontzeptuak hauek dira:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Gizarte Segurantzarekiko hitzarmenaren erregularizazioa, 2012. urtea	3.359.083,43
Gizarte Segurantzaren ABE prestazioen itzulketa	70.098,51
Mutua Navarraren LI/LG prestazioen itzulketa	25.218,99
Seme-alaba bakoitzeko familia-laguntzaren itzulketa	2.617,35
Agirien kopiak	38,70
Tonerraren birziklapena	57,08
Guztira	3.457.114,06

Foru Komunitateko Administrazioak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak 2005eko abenduaren 30ean hitzarmena sinatu zuten gizarte segurantzako kuoten ordainketarako harremanak arautzeko, eta hitzarmen hori indarrean egon da 2012an. Horren aplikaziotik sortu da “Gizarte Segurantzarekiko hitzarmenaren erregularizazioa, 2012. urtea” izeneko kontzeptua.

Hitzarmen hori aplikatuta, Foru Komunitateko Administrazioak hilean diru kopuru finko bat ordaintzen zuen bere zerbitzuko langile guztien kotizazioengatik: aurreko ekitaldiko diru-bilketari zegozkion kuoten zenbatekoaren hamabirena.

Aurrekontu-ekitaldia amaitutakoan kuoten behin betiko likidazioa egiten zen eta ateratako saldoak hurrengo ekitaldiko lehen hiru hilabeteetan ordaintzen ziren.

2012. urteari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren aldeko 3.359.083,43 euroko saldoa atera da eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak 2013an ordaindu du diru kopuru hori.

Zer beste arlo finantzatu dira edo finantzatu dira jada 020002-04100-3990-000000 kontusailaren kargura, baldin eta superabita badago?

Orain arte, galderaren azalpenean aipatutako montepioak finantzatzeko bakarrik erabili da diru-

sarreretako kontusail hori. Ez dago aurreikusita beste ezein arlo finantzatzea kontusail horren kargura.

Hori guztia, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Enpresarako Karbono Funtsean izandako parte-hartzearen balantzeari buruzkoa, ikuspuntu ekonomiko finantzariotik.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuak Espainiako Enpresarako Karbono Funtsean izandako parte-hartzearen balantzeari buruzkoa, ikuspuntu ekonomiko finantzariotik, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Espainiako Enpresarako Karbono Funtsean izandako parte-hartzearen balantzeari buruz, ekonomia eta finantza ikuspuntutik (PES-174). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuaren 2006ko abenduaren 11ko Erabakiaren bidez Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari baimena eman zitzaion Kreditu Ofizialeko Institutuak eta Santander Investment, S.A. sozietateak sustatutako Espainiako Enpresarako Karbono Funtseko (FC2E) partaidetzak harpidetzeko -gehienez bost milioi (5.000.000) euroko zenbatekoa-, emisio eskubideak erosi eta Nafarroako industrien eskura jarri nahi zirelako beren ingurumen arloko betebeharrarako.

Nafarroako Foru Komunitatea FC2Eri atxikitze-ko akordioa sinatu zuen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak 2006ko abenduaren 29an; horren bidez hitzeman zuen kapital-deiak ordainduko zituela funtsaren indarraldian sinatzen ziren ERPAS (Emission Reduction Purchase Agreements) kontratuetako konpromisoen ordainean, eta, halaber, funtsa kudeatzen duen FC2EGESTION, S.L. sozietateak egindako kudeaketa gastuak (irekitzea eta komisioak) ordaintzeko. FC2E hasiera batean 7 urterako (2006-2013) eratu zen, eta aipatutako datatik aurrera haren iraunaldia luza daiteke merkatuaren interesen arabera.

FC2Erekin sinatutako kontratu horretan Nafarroako Foru Komunitateari % 6,5359ko kuota edo parte egokitu zitzaion goian aipatutako funtsean. Hauek ziren FC2Eko gainerako partaideak: Kreditu Ofizialeko Institutua (% 32,68), Santander Carbon Finance, S.A. (% 32,68), Zeroemissions Carbon Trust, S.A. (% 13,07), Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutua (% 6,54), Calcinor, S.A. (% 3,92), Sociedad Regional de Coordinación Financiera con las Empresas Públicas de la Comunidad Autónoma de Cantabria (% 3,92) eta Cementos del Marquesado (% 0,65).

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, atxikipen akordioan bere gain hartutako konpromisoak betez, FC2E egindako kapital-deiei erantzun izan die.

FC2EGESTION sozietateak, 2011ko martxoan, funtsaren indarraldia 2013ko abendura arte luzatzea eskaini zion FC2Eko inbertitzaileen Batzar Nagusiar, 2012rako aurreikusita zeuden emisio

eskubideen emanaldien egutegiko atzerapenak estaltzeko. Bere proposamenaren arrazoi gisa esan zuen negoziatorako aukera sor zitekeela 2013ko maiatzetik aurrera, alegia, inbertitzaileek emisio murriztuen ziurtagiriak (EMZ) erosi ahal izanzen zituztela ordura arte baino baldintza onuragarriagoetan. FCE2ren zorroko proiektuen EMZ berriek, data horretan inbertitzaileek harpidetu gabe zeudenek, arrisku txikiagoa izanzen zuten eta horrenbestez prezio txikiagoa, harpidetzekotan borondatez harpidetuko zirelako, eta gauza bera gertatuko zen 2013ko apiriletik aurrera jaulkitako EMZ berriekin.

Kontuan izanik FC2Eren emaitza urriak, emisio eskubideen merkatuetan hark izan zuen bilakaera, ziurtagirien merkatuaren bilakaera, Kiotokoaren ondoko itun berririk eza eta Europar Batasuneko legeen inguruko zalantza handiak, 2011ko ekainaren 27an Nafarroako Gobernuak erabaki zuen ez sinatzea FC2Eko inbertsiogileen Batzar Nagusiak 2011ko martxoaren 31ko bilkuran proposatutako akordioak.

FC2Eko inbertitzaileen Batzar Nagusiak proposatutako erabakia ez onartzeak esan nahi zuen Nafarroako Foru Komunitateak funts horretako inbertitzailea izateari uztea eta FC2Erekin sinatutako atxikipen akordioan zeukan kontratu-posizioa lagatzea -funtse ez baitzen desegin- 2013ko apirilaren 30etik aurrera.

Kreditu Ofizialeko Institutuak eta Santander Carbon Finance, S.A.k izan ezik, partaide guztiek

erabaki zuten FC2En ez jarraitzea 2013ko apirilaren 30etik aurrera.

2012ko martxoaren 28an FC2Eko inbertitzaileen Batzar Nagusiak aho batez erabaki zuen funtsaren zorroari orduko inbertsio mailetan eustea eta, ondorioz, konpromisopeko kapitala 75.716.239,47 eurotik 48.179.208 eurora murriztea. Aldaketa hori egin zenean, Nafarroako Foru Komunitateak FC2En hasieratik zeukan % 6,5359ko partaidetzari eutsi zion, baina konpromisopeko kapitala 5.000.000 eurotik 3.148.967,84 eurora murriztu zuen. Proiektuetako inbertsioen kapital-deiak, ordea, azkenean 2.899.441 eurokoak izan ziren.

Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartutako betebeharrak osorik eta garaiz beteko zituela bermatze aldera, 2006. urtean FC2EGESTION sozietatearen alde kreditu-eskubideen bahia eratu zen Banco Santander, S.A. finantza-entitatean irekitako 0049-1821-06-2510637727 kontu korrontearen saldoaren gainean, Nafarroako Foru Komunitateak konprometitutako kapitalaren zenbatekoarekin. Kontu horren kontra igorri dira kapital-ekarpenak eta ordaindu dira inbertsioak sortutako interesak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak FC2EGESTION sozietateari kudeaketa-komisioengatik 776.932,31 euro ordaindu dizkio eta FC2Eren kapital-deiengatik 2.899.441 euro; guztira 3.676.373,31 euro. Aipatutako aldian FC2Eko partaidetzarengatik 459.825,89 euroko interesak jaso ditu.

KARBONO FUNTSA, AURREKONTUKO KONTUSAILEN ARABERA			
KONTZEPTUA	GASTUAK		DIRU-SARRERAK
	IREKITZEA ETA KOMISIOAK	INBERTSIOAK PROIEKTUETAN/KAPITAL-DEIAK	INTERESAK
2007. URTEA	232.000,00	92.231,56	161.404,19
2008. URTEA	145.000,00	30.927,38	196.168,93
2009. URTEA	75.516,27	54.989,18	32.319,25
2010. URTEA	126.441,17	69.859,42	19.461,53
2011. URTEA	102.899,89	135.426,99	39.819,51
2012. URTEA	75.144,27	1.105.621,84	9.683,19
2013. URTEA	19.930,71	1.410.384,63	969,29
AURREK. GUZTIRA	776.932,31	2.899.441,00	459.825,89

FC2Ek sinatutako ERPAS kontratuetan parte hartzeagatik, Nafarroako Foru Komunitateari 246.121 EMZ esleitu zaizkio, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari atxikitako Emisio Eskubideen Erregistro Nazionalen inskribatuak.

Argibide gisa 2. taulan jaso da Nafarroako Foru Komunitateak FC2En hasieratik parte hartzeagatik

dituen EMZen zerrenda, eta 3. taulan, berriz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak FC2En parte hartu duen urteetan ordaindutako kapital-deiengatik dituen EMZen zerrenda.

EMZen zerrenda (2007-2013).

EMZ EMANALDIAK			DEIENGATIKO ORDAINKETAK
2007/06/18	1. DEIA	-	75.776,18 €
2007/12/31	2. DEIA	-	16.455,38 €
2008/10/28	3. DEIA	-	30.927,38 €
2009/06/26	4. DEIA	-	34.755,39 €
2009/06/26	5. DEIA	148	2.371,27 €
2009/11/02	6. DEIA	1.379	17.862,52 €
2010/02/23	7. DEIA	2.732	10.266,90 €
2010/03/12	8. DEIA	2.433	59.592,52 €
2011/05/17	9. DEIA	1.201	26.723,45 €
2011/06/09	10. DEIA	10.111	108.703,54 €
2011/11/21	11. DEIA	3.122	51.544,71 €
2011/12/07	12. DEIA	3.074	35.566,18 €
2011/12/16	13. DEIA	1.764	24.071,23 €
2011/12/22	14. DEIA	9.589	44.675,16 €
2012/01/20	15. DEIA	5.836	46.799,52 €
2012/01/27	16. DEIA	5.632	65.049,60 €
2012/03/09	17. DEIA	1.309	16.205,58 €
2012/07/17	18. DEIA	2.568	35.011,39 €
2012/09/24	19. DEIA	13.387	154.619,85 €
2012/10/19	20. DEIA	14.565	168.225,75 €
2012/12/20	22. DEIA	40.091	463.852,87 €
2013/03/15	23. DEIA	15.631	133.546,81 €
2013/03/15	24. DEIA	7.688	80.724,00 €
2013/04/11	25. DEIA	103.861	1.196.113,82 €
GUZTIRA		246.121	2.899.441,00 €

3. taula.- Nafarroako Foru Komunitateak FC2En parte hartu duen urteetan ordaindutako kapital-deiengatiko EMZen zerrenda.

Kapital-deiak IFFCO (*)	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	Guztira
			2.732	2.433															15.631		11.193	31.989
Ecoayres	148	1.379			1.201	7.739														7.688		18.155
Guohua Hebei Huanghua						2.372	2.905															5.277
Guohua Binzhou								3.074														3.074
Zhanhua																						0
Guohua Dongying Lijin																						0
Guohua Dongying Hekou													1.309	2.568								3.877
Fujian Zhangpu Liyao																		37.213				37.213
Eurus Wind Farm																						
Combined Cycle power project																		2.878			65.400	68.278
Tunlan CMM							2.568															11.517
Bangkok West Landfill																8.949						5.632
Malan CMM									1.764							5.616						7.380
Suzhou Landfill								217														217
Bangkok East Landfill															13.387							13.387
Biopower Rice Husk Power Pichit																						0
BOG and COG Jinan																						8.620
Tambun LPG Gas																						10.984
Recovery Indonesia																						10.984
Anshan Iron Blast furnace gas																						7.664
Tijunqinhas Landfill Project										9.589	3.268											12.857
EMZk, guztira	148	1.379	2.732	2.433	1.201	10.111	3.122	3.074	1.764	9.589	5.836	5.632	1.309	2.568	13.387	14.565	0	40.091	15.631	7.688	103.861	246.121

FC2Ek ez die partaideei inolako betebeharrak edo baldintzarik ezartzen jasotako eskubideen geroko erabilerari buruz. Beraz, Nafarroako Foru Komunitateak eskubide horiek besterendu ahal izanen ditu inolako baldintza edo mugarik gabe.

Eguneko prezioak eta estatistikak webgune honetan ikus daitezke: www.sendeco2.com

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 18an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz, BEZa dela-eta “Estatuarekiko doikuntzak” kontzeptu gisa jaso edo ordaindutako kopuruei eta haien datei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz, BEZa dela-eta “Estatuarekiko doikuntzak” kontzeptu gisa jaso edo ordaindutako kopuruei eta haien datei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz BEZa dela-eta "Estatua-

rekiko doikuntzak" kontzeptu gisa jaso edo ordaindutako kopuruei eta haien datari buruz (PES-177). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legeak dioenez, zergabilketaren doikuntzen ondoriozko finantza fluxuak kasuan kasuko ekitaldiko martxoan, ekainean, irailan eta abenduan egingen dira. Koordinazio Batzordeak adostutako metodoaren arabera, ordainketa/diru-sarrera horiek kasuan kasuko hiru-hilekoko azken egun baliodunean egiten dira.

2007ko urtarriletik 2013ko irailera bitartean hauek izan dira BEZaren doikuntza dela-eta hiru-hileko bakoitzean jasotako (+) edo ordaindutako (-) diru kopuruak:

	Martxoa(*)	Ekaina	Iraila	Abendua
2007	56.528.511,81	75.707.852,74	57.558.811,19	88.939.654,50
2008	22.973.672,50	62.698.226,48	56.215.007,74	93.732.188,18
2009	46.146.766,96	34.771.897,08	26.813.334,33	57.539.004,06
2010	-94.969.262,18	54.138.675,68	70.316.917,15	74.099.819,96
2011	-41.273.206,04	71.420.871,91	67.161.319,28	73.845.634,62
2012	-55.448.353,19	277.653.700,43	37.536.631,52	223.528.090,93
2013	-34.819.183,59	172.203.881,37	106.332.664,29	

(*) Martxoan likidatzen dira bai urteko behin-behineko doikuntza bai aurreko urteko behin betiko doikuntza

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroaren 15ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Gazteluko plazan aurkitutako aztarna arkeologikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Carlos Longás García jaunak egindako galderaren erantzuna, Gazteluko plazan aurkitutako aztarna arkeologikoei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan Carlos Longás García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Gazteluko plazan aurkitutako aztarna arkeologikoei buruz (PES-00153). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Gazteluko plazako magbarako aztarnen aldi baterako mailegua Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abuztuaren 16ko 296/2004 Foru Aginduaren bidez baimendu zen. Foru agindu horretan ez zen zehaztu nora eramanen ziren aztarnak aldi baterako, bete behar ziren baldintzak baizik (asegurua eta berariazko segurtasun baldintzak, Kultur Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak onartu beharrekoak). Aztarnak, prentsan zabalduak gora-behera, inoiz ez ziren bidali Alacanteko Unibertsitateara, zentro horrek ez zituelako bermatu eskatzen ziren zaintza eta konfidentzialtasuna. Alebus Patrimonio Histórico, S.L. arkeologiako enpresaren lokal batera eraman ziren aztarnak. Bertako segurtasun baldintzak onartu egin ziren, adierazitakoaren arabera.

Baimena 4 urterako eman zen. Aztarnak epe horretan eta behar bezala itzuli dira Nafarroako

Gobernuaren Arkeologia Funtsetara eta bertan daude gaur egun.

Aztarna islamikoak 172 dira. Horiez gain, erritu ez islamikoko zenbait hilobi daude eta horiek ere aztertu egin dira, dela Nafarroako Gobernuaren Arkeologia Funtsetan, dela kanpoan, aldi baterako lagata. Aztarna hauexek dira:

- Erromatar garaiko hilobi komuna bost gorpurekin eta exekutuak izanaren zantzuekin.
- Erdi Aroko nekropoli kristauko bi ehorzleku. Gorpuzkinek intereseko patologiak dituzte.

Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusiaren apirilaren 26ko 495/2002 Ebazpenak, azterketa antropologikoa egiteko agindu zuenak, ez zuen zehaztu ikerketa egiteko prozedura administratiborik. Ez dago atal honetan jasorik Alacanteko Unibertsitatearekin inolako hitzarmenik sinatu denik.

Gazteluko plazako magbarako aztarna antropologikoen azterketa M. Paz de Miguel Ibáñez lizentziadunaren doktorego tesia da. "La magbara de Pamplona (s.VIII). Aportes de la osteoarqueología al conocimiento de la islamización en la Marca Superior" (Iruñeko magbara (VIII. m.). Osteoarkeologiaren ekarpenak Iparraldeko Markaren islamizazioa ezagutzeko) izenburua du, eta Sonia Gutierrez Lloret doktoreak (Arkeologiako katedraduna) zuzentzen du. Tesi hori oso aurreratuta dago.

Orain arte ikerketa hauek egin dira:

- Erromatar garaiko hobi komunaren datazioa AMS bidez, hezurretan oinarrituta.
- Antzinate Berantiarreko ehorzleku kristau baten datazioa AMS bidez, hezurretan oinarrituta.
- Magbarako bi gorpuren datazioa AMS bidez. Beta-Analytic laborategiari (AEB) enkargatu zaio lana.

– Mikroskopia elektronikoa eskaneatzailearen bidez hainbat hilobi islamikotako hortzak aztertzea, haurrenak zein helduenak, Alacanteko Unibertsitateko Bioteknologia Departamentuan.

– Magbarako bi ehorzleketako isotopo egonkorak aztertzea, Durhamgo (Erresuma Batua) eta Arizonako (AEB) unibertsitateetan.

– Mycobacterium leprae eta Mycobacterium tuberculosis mikroorganismoak (legenarraren eta tuberkulosiaren eragileak) identifikatzeko azterketa molekularrak Durhamgo (Erresuma Batua) eta Arizonako (AEB) unibertsitateetan.

Magbarako gorpuzkinen azterketa genetiko osoa egin da. “Análisis genético de la maqbara de Pamplona (Navarra, s.VIII): una ventana a la invasión islámica en el norte de la Península Ibérica” (Iruñeko magbararen azterketa genetiko (Nafarroa, VIII. m.): leihu bat Iberiar Penintsulako iparraldeko inbasio islamikoari begira) izenburuko ikerlana Lara Fontecha Martínez doktorearen tesia izan da. Tesi hori 2013an defendatu da Euskal Herriko Unibertsitatean, Concepción de la Rúa Vaca eta Neskuts Izagirre Arrizabalaga doktoreen zuzendaritzapean.

Ikerlan horiek honako erreferentzia zientifikoa hauetan jaso dira:

– De Miguel Ibáñez, M. P. (2007): “La maqbara de la Plaza del Castillo (Pamplona, Navarra): avance del estudio osteoarqueológico”, *Seca, Ph* (arg.) *Villes et campagnes de Tarraconaise et d'Al-Andalus (V-XI siècles): la transition*, 183.-197. or.

– Faro Carballa, J.A.; García-Barberena Unzu, M.; Unzu Urmeneta, M. eta De Miguel Ibáñez, M. P. (2007): “Iruñeko Gazteluko plazako hilerri islamikoa”, “Lurra arina izan dakizula” erakusketaren katalogoa, 249.-252. or.

– De Miguel Ibáñez, M. P. (2008): “Gestantes en contextos funerarios altomedievales navarros”, *Lucentum*, XXVII, 234.-242. or.

– De Miguel, M. P., Unzu Urmeneta, M., Faro Carballa, J.A.; Prieto Sáez de Tejada, P. eta García-Barberena Unzu, M. (2008). “Evidencias de ajusticiamiento: a propósito de una fosa común de época romana (s. II-IV) (Plaza del Castillo, Pamplona). Roca de Togoies, C. eta Rodes, F. (arg.), *Antropología Fisikoari eta Auzitegiko Antropologiari buruzko Jardunaldietako aktak*. Alacant, 2006ko 29a eta 30a, 81.-88. or.

– De Miguel Ibáñez, M. P.; Romero, A. eta De Juan, J. (2009): “Evidencias de mutilación dentaria en la necrópolis islámica (s. VIII d.C.) de Pamplona (Navarra), Polo, M. eta García-Póper, E. (arg.). *Investigaciones histórico-médicas sobre salud y enfermedad en el pasado*, 619.-627. or.

– Romero, A.; De Miguel, M. P.; Buikstra, J.E.; Kmiedson, D.J.; Prevedorou, E.A.; Díaz Zorita, M. eta De Juan, J. (2009): “Mutilación dentaria en la necrópolis islámica de Plaza del Castillo (siglo VIII d.C.) de Pamplona (Navarra). *Revista Española de Antropología Física*, 29, 1.-14. or.

– Prevedorou, E.; Díaz Zorita, M.; Romero, A.; Buikstra, J.; De Miguel, M. P. eta Knudson, D. (2010): *Residential Mobility and Dental Decoration in Early Medieval Spain: Results from the Eighth Century Site of Plaza del Castillo, Pamplona*, 42.-52. or.

– Romero, A.; Gómez-González, S.; De Miguel, M. P. eta De Juan, J. (2010): “Análisis intra- e interoblacional de microdesgaste dentario en dientes deciduos y permanentes”, *Gutiérrez Redomero, E.; Sánchez, A. eta Valera, V. (arg.) Diversidad Humana y Antropología Aplicada*, 583.-591. or.

– De Miguel M. P.; Ballesteros, J.M.; Unzu, M.; Faro, J.A. eta García Barberena, M. (2011): “Tres posibles casos de lepra en la Plaza del Castillo (Pamplona, Navarra)”, *Paleopatología: ciencia multidisciplinar*, 355.-365. or.

– De Miguel Ibáñez, M. P. (2012): “Mortui viventis docent. La maqbara de Pamplona”

Erdi Aroko Ikerketen XXXIX. Astea, 351.-375. or.

Konpromiso ekonomikoari dagokionez, esan behar da gai hori sustatzaileari dagokiola. Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusiari aztarnen kontserbazioaz, babesaz eta zabal-kundeaz arduratzea dagokio.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko azaroan

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

